

16/1993 DEKRETUA, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 79.2 atalean ezartzen denez, funtzionariak badute eskubiderik eskeini dituzten zerbitzuetan izandako gastuengatiko kalteordainak eskuratzeko; diruzenbatekoak eta baldintzak arauz finkatuko dira.

Aipatu legean jasotakoa betetzeko eta funtzionari publikoek euren egitekoetan dihardute-nean izan ditzatengastuei behar-bezala aurre egiteko orduan araubaliabide egokiak izateko, Dekretu honen bidez, zerbitzuan iharduteagatik Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoetan lanean ari diren funtzionariak jasoko dituzten kalteordainen erregimena arautzen da era bateratsuan.

Finkatzen den eraketak mugatu egiten ditu kalteordainak eskuratzeko bideak, Administrazioko eta Epaitegietako Organo kolegiatuen bileretan parte hartzearen eta hauen pentzutan heziketa-iharduketetan parte hartzearen ondoriozko konpentsazioak, hasierako diruzenbatekoak, eguneratze mekanismoak eta horiek ordaintzeko eskubidearen jatorri diren agiangoak eta baldintzak; horrez gain, berebiziko arreta eskatzen duten adibide bereziei buruz beharrezkoak diren prebisioekin osatuz.

Horiek horrela, 6/1989 Legeko 8. atalean xedatutakoa betez Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak emandako diktamena ikusita, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez eta Jaurlearitzaren Kontseiluak 1993ko otsailaren 2an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

ERIZPIDE OROKORRAK ETA BALIATZE EREMUA

1. atala.– 1.– Ondoren aipatzen diren zerbitzuetako langileak baliatu ahal izango dira Dekretu honetaz:

a) Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko eta bere Erakunde Autonometako Administrazio Nagusia, lurralde horretako Poliziako funtzionariak izan ezik.

b) Foru eta Toki Administrazioak.

c) Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak.

d) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

e) Lan Harremanetarako Kontseilua.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, martxoaren 26ko 60/1996 Dekretuan ezarritakoarekin bat.

2.– Karrerako funtzionariak, behin-behinekoak, aldibaterakoak eta saiobidean dauden funtzionariak hartzen ditu aurreko idazatian adierazitako eragineremuak. Dena dela, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzuango Behin-behineko langileak, urriaren 28ko 14/1988 Legeko 3. atalean jasotako oharremateak aplikatu behar dituztenak alegia, azken manu honetan eta horren garapenerako eman daitezzen arauetan xedatutakoa izango dute jarraibide lez.

3.– Lan itunepeko langileen kalteordainak, horientzat aplikagarriak diren itune kolektiboan edo arautegian jasotakoari jarraiki arautuko dira.

4.– Dekretu honetan xedatutakoak ordezkatzeko indarra izango du Dekretu honen aplikapen eremuan sartu gabeko langileentzat, baldin eta atal honetako lehenengo idazatian aipatzen diren Administrazio Publikoen zerbitzuean egon badaude. Kasu honetan, langileek horiek duten lan-lotura zein den berdin diola eta.

2. atala.– Ondorengo idazatietan aipatzen diren egoeretan izango da kalteordainerako eta konpentsaziorako eskubidea, Dekretu honetan ezartzen diren baldintza eta eskakizunei men eginez:

a) Lan-leku aldaketak.

b) Zerbitzu zereginetan izan daitezkeen joanetorriak.

c) Trebaketa edo hobetze ikastaroetara bertaratzea, horretarako baimena ematen duen Erabakian halaxe xedatzen denean.

d) Administrazio Organoko Kolegiatuaren eta Baltzu Publikoetako Zuzenbide Pribatuko Izaiki Publikoetako Administrazio Kontseiluen bileretara joatea. Langileen hautaketa prozesuak epaitzeaz arduratuko diren epaimahaietan edo profesioetan iharduteko eta lanean aritzeko gaitasun behar diren saioretan parte hartzea. Administrazioaren trebaketa zereginetan laguntza eskeintzea, baina ez beti ez eta ohiz ere.

e) Atzerriko destinoa.

3. atala.– Kalteordainak eskuratu ahal izateko egiaztatu egin beharko da beti gastua bene-tan egin dela. Beste kontzepturen batengatik dagoeneko eskuratu badituzte kalteordainak, ez da egongo berriro eskuratzetik. Gastuagatik ordaindutakoa Dekretu honetan xedatutakoa aplikatuz ateratzen dena baino txikiagoa bada, aldeari dagokiona ordainduko da.

4. atala.– Dekretu honetan ezartzen diren agiangoak eta baldintzak agertzen badira, langileek kalteordainak edo konpentsazioak eskuratu ahal izango dituzte honako gai hauengatik:

a) Bidaia-gastuak; hau da, zerbitzuko zereginetarako hartutako garraiabideren bat erabiltzeagatik ordaindu behar den diruzenbatekoa

b) Otordu gastuak; hau da, bazkaltzen eta afaltzen gastatutako diruzenbatekoa, bakoitza bere aldetik kontutan hartuz.

c) Hazkurrirako dieta; hau da, ohizko egoitzatik kanpo egindako egonaldiak dakartzen bazkari eta afari gastuak ordaintzeko egunero erabiltzen den diruzenbatekoa.

d) Alojamentu gastuak; hau da, egoitza ofizialetik kanpo lo egin eta gozaltzeagatik ordaindutako diruzenbatekoa.

e) Behin-behineko egoitzagatik kalteordaina; hau da, egoitza ofizialetik kanpo lanean aritu izanagatik sortutako gastuagatik egunero ordaindutako diruzenbatekoa.

f) Tokiz aldatzeagatik kalteordaina; hau da, egoitzaz aldatzeagatik eskuratzen den diruzenbatekoa.

g) Bertaratzea; hau da, Administrazio Organoko Kolegiatuaren eta Administrazio Kontseiluen bileretara joatea, Epaimahaietan parte hartzea eta trebaketa ekintzetan laguntzea.

h) eskolatzegastuak; atzerrian destinaturik dagoen funtzionarioaren adin txikiko seme/alaba bakoitzaren eskolatzegatik ordaintzen duen diruzenbatekoa sartzen da hor, 28. atalean aurrizkoak diren baldintzak betetzen direnean.

i) erosteko gaitasuna eta bizitzako baldintzak parekatzeko kalteordaina; atzerrian destinaturik dagoen funtzionarioari ordaintzen zaion diruzenbatekoa da, Euskal Autonomi Elkartearen lituzkeen erostegaitasunaren eta bizi-baldintzen parekoa izan dadin.

5. atala.– 1.– Benetan gastatutako eta zuritutako diruzenbatekoa ordainduko da otordu gastuegatik; diruzenbateko hori ez da izango hazkurri dietarako jarritako diruzenbatekoaren %50a baino gehiagokoa.

2.– Dagokion kalteordaina ordaintzeko orduan, bazkaria eta afaria joko dira otordu gastu lez, bakoitza bere aldetik hartuta.

6. atala.– 1.– Bidaia-gastuak direnean, txartelak edo pasaiak duten balioaren arabera ordainduko da; norbere ibilgailua erabiltzen bada, egindako ibilbidearen hainbateko dirua, Dekretu honetako II Eraskinean ezarritako eran. Gainerakoetan, benetan gastatutako eta egiaztatutako diruzenbatekoa ordainduko da.

Ibilgailua aparkatzegatik gastuak eta autopistako bidesariak ere ordainduko dira, benetan gastatutako eta egiaztatutako diruzenbatekoaren arabera.

2.– Norbere ibilgailua erabiltzearen ondoriozko kalteordaina, ibilgailuaren jabeak edo erabiltzeko baimena duenak bakarrik eskura dezake; ildo horretatik, berdin dio ibilgailu hori zenbatek erabili duten batera.

3.– Joan-etorriak taldekako garraiabide publikoetan egingo dira ahal den guztietan; hala ere, zernolako bereziak direlaeta, norbere ibilgailua edo beste garraiabide bat erabiltzeko baimena eman daiteke. Garraiabide lez abioia edo tresna erabiltzen bada, turistaren eta primerako sailak erabiliko dira; bidaia neketsua izan badaiteke edo dagokion sailean txarteletik edo pasirik ez balego, sail hobean joateko baimena eman daiteke.

7. atala.– 1.– Hazkurritarako dietak edo aplikagarria izan daitekeen horien portzentaia eskuratu egingo dira sortutako egunen arabera, Dekretu honetako I Eraskinean jasotako zenbatekoaren arabera.

2.– Estatutik kanpo sortzen bada dietarako eskubidea, I Eraskin horretan oharmandako zenbatekoa %50ean gehituko da.

8. atala.– 1.– Lo egitea eta gosaltzea hartuko dira alojamentu gastu lez.

2.– Lau izerrerarteko ostatuak hartu beharko dira edo Administrazioak erabaki edo itune bidez aukeratu dituen ostatuetan. Hala ere, joan-etorritarako arrazoi izan den ekintza lau izerritik gorako hotelean burutzen bada, salbuespen lez hartuko da hotel horretan alojatzeari.

3.– Alojamentu gastuetarako eskuratu daitekeen zenbatekoa, benetan gastatu eta zuritutakoaren hainbatekoa izango da, aurreko idazatian ezarritako mugei egokitu beharko zaiela.

Ostatuaren barne ez bada sartzen gosaria, benetan gastatutako eta zuritutako zenbatekoa ordainduko da horren ordain lez, zenbateko horrek ezingo du gainditu hazkurri dietarako jarritako zenbatekoaren %15a.

9. atala.– Behin-behineko egoitzagatik kalteordaina, sortzapen egunen hainbatekoa izango da; horretarako zenbatekoa, hazkurri dietarako begiz jotako zenbatekoaren %150ekoa izango da.

Itunepekoa bada alojamendua, %55ekoa izango da portzentaia hori; itun horretan ez bada gosaria sartzen, %65erartekoa izango da portzentaia.

II. ATALBURUA

LANPOSTUKO GORABEHERAK

10. atala.– 1.– Atalburu honetan oharmandako ondorioetarako, lanpostuko gorabehera lez hartuko dira honako egoera hauek:

a) Halabeharrezko izaeraz esleitutako zerbitzualdiak, baldin eta interesatuak bere lanpostua dueneko herritik kanpo betetzen badira.

b) Lanpostutik kentzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50. ataleko 4. idaztiaren 2 eta 3 txataletan eta a) pasartean xedatutakoaren arabera.

c) Lanpostua lekuz aldatzea, bai behinbehinerako zein behinbetirako.

2.– Zigor izaerako zehapenen ondoriozkoak ez dira egundo lanlekuko gorabehera lez hartuko, eta ez dute kalteordainak eskuratzeko ezelango eskubiderik izango.

11. atala.– 1.– Lan-leku aldaketek, baimena jasota badute, otordu-gastuak ordaintzea dakarte; egoitza herritik destinorarteko bidaia eta itzulerako bidaia ere ordainduko dira. Otordu gastuetarako ere emango da baimena, baldin eta destinoko herrian jaten bada; horri dagokionez, egoitzatik destinoherrirarteko aldea, egon dauden garraiabideak eta lanordu kopurua hartuko dira kontutan.

2.– Aurreko idazatian oharmandako kalteordainek, honako sortzapen hauek izango dituzte:

a) Halabeharrez esleitutako zerbitzualdiak eta lanlekutik behin-behinekoz higitzea, eskubide horren jatorri diren baldintzak dirauten bitartean.

b) Aurreko ataleko 1 idaztiko b) hizkian jasotakoetan, interesatuak behin-betiko destinoa nahinon lortzen ez duen bitartean edo Behin-behineko destinoatxekipena duen herrira bere egoitza aldatzen ez duen bitartean; bi urtekoa izango beti gehienezko epea.

c) Lan-lekuz behin-betirako aldatzen denean, interesatuak bere egoitza destino-herrira aldatu artean; bi urtekoa izango beti gehienezko epea.

12. atala.– 1.– Kalteordaina eskuratzeko eskubidea izango du bai familiko titularrak zein lekuz aldatzen diren familikide guztiek; diruzenbatekoa, Dekretu honetako III Eraskinean adierazten da, hots, kalteordainaz gain, altzariak eta tresneria garraiatzeak dakartzan gastuak ere eskuratu ditzake, onartutako eta zuritutako aurrekontua aurkeztu ondoren:

a) Dekretu honetako 10. atalaren 1 idaztiko b) hizkian adierazitako egoeretan, Behin-behineko atxekipena duen herrian jartzen badu bere egoitza edo behinbetirako destinoa lortzen badu.

b) Lanlekutik behin-betikotasunez egiten diren joan-etorrietan, lanleku hori kokatuko den herrira aldatzen badu bere egoitza.

2.– Eskubidedunaren pentzutan bizi direnak joko dira familiako kide lez.

3.– Familia batetan bi lagun edo gehiago badaude atal honetan jasotako kalteordainak eskuratzeko eskubidea dutenak, horietako batek baino ez ditu ekarriko sortzapenak.

4.– Aldaketaren gai izan zen ekintza-egunetik kontatzen hasi eta bi urte igaro ondoren galduko du indarra egoitzaz aldatzeagatik kalteordainak eskuratzeko eskubideak.

13. atala.– 1.– Lanlekuz aldatzearen gai izan daitezkeen kasuak aztertzen dituzten erabakietan zehaztuko dira kalteordainak; kalteordainok, Dekretu honetan xedatutakoaren arabera, bidezko-tzat jo beharko dira aldezaurretik.

III. ATALBURUA

ZERBITZUKO JOANETORRIAK

14. atala.– Langileek euren egitekoak egunero lez betetzean edo egoera jakin baten gaineratzen zaizkien egitekoak betetzean derrigorrez burutu behar dituztenak joko dira zerbitzuko joan-etorri lez.

15. atala.– Lanlekua kokatuta dagoen udalerrriaren barruan egiten bada joan-etorria; edo hortik kanpo egin, baina interesatuak egoitza duen udalerrian lo egin badu, Bidaia-gastuak eskuratzeko eskubidea izango du. Udalerritik kanpo joan behar balu eta burutu behar dituen ekintzen ondorioz bertan bazkaldu beharko balu, hori dela-eta izandako gastuak eskuratu egingo lituzke; eskuratu aurretik, zerbitzua ezarri dion agintedunaren adostasuna beharko du.

16. atala.– Lanlekua kokatuta dagoen udalerritik kanpora egindako joan-etorriak, egoitza herritik kanpo lo egitea eskatzen duten joan-etorriak, hainbat kontzepturengatik eskuratzeko eskubidea ematen dute:

a) Bidaia-gastuak. Joan-etorrian izandako gastuak ordainduko dituzte eta, beregain dituen zereginen ondorioz, geroakarenean destino-herritik kanpo burutu behar direnak ere bai. Egonaldia urtebetetik gorakoa bada, destino-herritik egoitza-herrirainoko bidaiei dagokiena eskuratzeko eskubidea izango dute langileek eta itzuliko bidaiei dagokiena ere bai, baldin eta horrela jasotzen bada aipatu zereginei buruzko erabakian; bakar batek baino ez du eskubide hori izango.

b) Hazkurrikako dieta. Joate egunetik sortuko ditu eskubideak; joate eta itzultze egunen bitarteko epeak, gehienez hogeita hamar egunekoak, hartuko dira kontutan. Arratsaldeko hirurak ostean irtenez gero, dietaren %50a eskuratuko da egun horretan; berdin jokatuko da itzultzeko egunean, ordu hori igarota ekiten bazaio bidaiari.

c) Alojamentu gastuak. Joate egunean izandakoak ordainduko dira; joate eta itzultze egunen bitarteko epeak, gehienez hogeita hamar egunekoak, hartuko dira kontutan. Behin-behineko egoitzagatik kalteordaina sortzeko eskubidea duten langileek egin ditzatenak ere ordainduko dira, baldin eta, eurengan hartu dituzten zereginak direlaeta, destino-herritik kanpo lo egiterik badute.

d) Kalteordaina, Behin-behineko egoitzagatik. Egonaldia hogeita hamar egunetik gorakoa denean sortuko ditu eskubideak, itzultze egunetik hasi eta hazkurridieta eta alojamentu gastuak eskuratzeari utzi arteko egunetan hain zuzen ere; hala ere, derrigorrezkoa izango da sortzapean horretarako atal honetan ezartzen den Behin-behineko epemuga gainditzea.

17. atala.– Zerbitzu eginkizunak direlaeta egindako joan-etorrietan norbere ibilgailua erabiltzeko baimena Saileko edo Erakunde Autonomoko Zerbitzu Zuzendaritzak emango du Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioarako lan egiten duen langileentzat. Gainerako Administrazio Publikoetan, agintedun Organuek emango dute baimena. Administrazio unitateetako arduradunek ere eman dezakete baimen hori; unitateok, ondorio horietarako, aipatutako Organoek habilitatu beharko dituzte.

IV. ATALBURUA

TREBATZE EDO HOBETZE IKASTAROK

18. atala.– 1.– Trebatze edo hobetze ikastaroetara joateak egoitza-herritik kanpo lo egitea badakar, 16. atalean oharmandako kalteordainak ordainduko dira, berton ezarritako era eta baldintzetan.

2.– Ikastaro horrek ez badu eskatzen egoitzaherritik kanpo lo egitea, ikastaro horretara bertaratzeak zera dakar:

a) Bidaia-gastuak. Joan-etorrian izandako gastuak ordainduko dira.

b) Otordu gastuak. egoitza-herritik kanpo egin daitezenez ordainduko dira; egoitza-herritik destinoherrirako aldea, erabilgarri dauden garraiabideak eta ikastaroaren ordutegia izango dira kontutan baimena emateko.

3.– Ikastaroan izena emateak edo berorretara bertaratzeak dakartzan gastuengatik ere esku-ratu ahal izango dira kalteordainak, benetan gastatutakoa hainbat ordainduko zaiela.

19. atala.– 1.– Trebatze eta hobetze ikastaroetan parte hartzeko baimemak ematen dituzten erabakietan zehaztuko dira kalteordainak, dekretu honetan xedatutakoaren arabera eta kasu bakoitzak dituen zernolakoak kontutan hartuz, bidezkotzat jotzen diren kalteordainak hain zuzen ere.

2.– Trebatze edo hobetze ikastaroetara bertaratzeagatik eman daitezkeen kalteordainek, bertaratze baimenari buruzko erabakian horrela xedatu duten hasuetan bakarrik izango ditu sortzapenak; bete behar diren baldintzak ere erabaki horretan daude finkatuta.

V. ATALBURUA

BERTARATZEAK

20. atala.– 1.– Atalburu honetan jasotakoaren arabera ordaindu behar den dirutza joko da bertaratze lez, honako egoeretan:

a) Administrazio Organo Kolegiatuaren bileretara eta Baltzu Publikoetako eta Zuzenbide Pribatuko Izaiki Publikoetako Administrazio Kontseiluen bileretara bertaratzea.

b) Langileak aukeratzeko prozesuak edo saioak epaitzeaz arduratuko diren Epaimahaietan parte hartzea, izan ere, horiek gaintzea beharrezkoa izango da bai profesionalen lanari ekiteko eta bai iharduketetan aritzeko ere.

c) Administrazioaren trebatze ekintzetan laguntza eskeintzea, baina ez beti, ez eta ohiz ere.

2.– Bertaratze horiek eskuratzeko Atalburu honetan adierazitako mugak gaintzen dituzten diruzaintzakoak, sortzapen horien eragile izan diren langileak atxikita daudeneko Administrazioaren Diruzaintzan sartuko ditu artez Erakunde ordaintzaileak.

Eskuratu ahal izateko jarri zaizkien mugetara iritsi badira azaldutako sortzapenak, gaintzen hori izan duen Erakundeari eman beharko dio horren berri interesatuak.

3.– Atalburu honetan aipatzen diren eskuraketak eta parte hartzeak ekar ditzaketen joan-etorriei dagozkien kalteordainak bateragarriak izango dira.

4.– Betetzen den lanpostuarekin zerikusi zuzena dutela eta, Organo Kolegiatu, Administrazio Kontseilu edo aukeraketa saioetako Epaimahai bateko kide izan edo horietako batetan parte hartzen bada, Atalburu honetan adierazitako bertaratzeak ez dira izango egundo aplikagarriak eta kontzeptu horrek ez du ezelango sortzapean ekarriko.

21. atala.– 1.– Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioaren Organo Kolegiatuaren bileretara bertaratzeak oso egoera berezietan baino ez ditu ekarriko sortzapean, honako hauetan alegia, Ogasun eta Finantza Sailak eta Lehendakariak, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailak, biak batera, proposamena egin eta Eusko Jaurlaritzaren akordioz horretarako baimena eman dadinean, Jaurlaritzak berak zehaztutako zenbatekoei eta baldintzei lotuz. Ardurarik duen Sailak edo Erakunde Autonomoak horrela eskatu ondoren emango da baimena.

Gainerako kasuetan, bertaratzearen ondoriozko sortzapean, dagokion Administrazioako agintadun Gobernu Organoaren aldeaz gertatutako baimena beharko du.

2.– Euren Administrazio Kontseiluetara bertaratzeagatik eskura daitezkeen diru-konpentsazioak Baltzu Publikoek eta Zuzenbide Pribatuko Izaiki Publikoek finkatuko dituzte, euren estatutuaren eta aplikagarriak zaizkien gainerako xedapenetan ezarritako erizpideen arabera.

3.– Aurreko bi idazrietan aipatzen diren bertaratzeengatik ezingo da egundo eskuratu, urte bakoitzeko, %40tik gorako guztizko zenbatekorik; portzentaia hori, A Taldeari dagozkion oinarriko alokairuei, hiru urtekoak kanpo, dagokiena da.

22. atala.– 1.– Langileen hautaketa prozesuak epaitzeaz edo profesioetan iharduteko eta lanean aritzeko gaitasun behar diren saioak epaitzeaz arduratuko diren epaimahaietan parte hartzea ordainduko da; horrela egon beharko du jasota deialdiari buruzko erabakian.

2.– Epaimahaikideek, eta epaimahaikideei aholkuak ematen dizkieten langileek edo beroiekin zaingo edo sorospen materialeko zereginetan dihardutenek eskuratuko dituzte bertaratzearen ordainak.

3.– Bileretara joateari dagozkion sortzapean bileren kopuruaren arabera izango dira. Bilera kopuru osoa lortzeko kontuan hartuko da prozesu osoaren ordu kopurua eta lortutakoa zati sei izango da emaitza, gainontzeko guztia era proportzionalan konpentsatuko delarik. Dena den, prozesu osoagatik gutxienez bilera bat konpentsatuko da.

Larunbatetan edota jaietan egindako bilerak lehengo idatz-zatian jaso den bezala kalkulatzeko, ordu bakoitzeko ordu eta erdi zenbatuko da.

Guzti horren arabera organo bakoitzeko lehendakariak ezarriko du kide edo laguntzaile bakoitzari dagokion bilera kopuru zehatza.

4.– Urtebete bakoitzeko ezingo da sekula 75 bertaratzetik gora eskuratu.

5.– HAEEko ordezkariak sortzen dituzten bertaratzeak erakunde horrek ordaindu beharko ditu zuzenean.

23. atala.– 1.– Administrazioako trebaketa iharduketetan, bai konferentzia, ikastaro eta mintegietan, edo antzeko iharduketetak garatzen dituzten ekintzetan noizbehinka laguntza eskeintzeagatik ere ordaindu daitezke bertaratzeak.

2.– Administrazioaren zerbitzupeko langileak trebatzeko edo berorrek zerikusirik duten azterlanak egiteko Zentru Ofizialak erabakitako iharduketetan parte hartzeak sortzen badu bertaratzea,

helburu horietarako aipatu Zentruak onartzen dituzten baremoei egokituko zaizkie eskuratu beharreko zenbatekoak.

Enparatuetan, Ogasun eta Finantza Sailak eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailak finkatuko dute zenbatekoa Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioan; gainerako administrazio publikoetan, ordea, agintedun organoek.

3.– Aurreko bi idazatietan aipatzen diren bertaratzeengatik ezingo da egundo eskuratu, urte bakoitzeko, %40tik gorako guztizko zenbatekorik; portzentaia hori, A Taldeari dagozkion oinarritzko alokairuei, hirurtekoak kanpo, dagokiena da.

24. atala.– 1.– Atalburu honetan ezarritako bateraezintasunak, egitekoei eta ordainketei buruzkoak, ez betetzea, aplikagarria den zigor-erregimenaren arabera zehatuko da.

2.– Alderdien artean laguntza eskeiniz, bertaratzeak ordaintzen dituzten Erakundeei dagokie langileek egin ditzaketen bateraezintasunei aurre hartzea eta, hala behar izanez gero, zuzentzea, Dekretu honetan interesatuei leporatzen zaizkien betebeharren kaltetan gabe.

VI. ATALBURUA

ATZERRIKO ZERBITZUA

25. atala.– Destinoa atzerrian duen funtzionarioa Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak atzerrian duen bulego, zentru edo zerbitzu batean dagoen lanpostu bati behin-behinekoz edo behin-betikoz loturik dagoena da.

26. atala.– 1.– Destinoa atzerrian duen funtzionarioak, bere egoitza aldatzen badu, bere altzari eta tresneria Autonomi Elkarteko bere azkeneko egoitzaetik destinoko herrira garraiatzeko gastuak ordainduak izateko eskubidea izango du.

2.– Atzerriko bere destinoa bukatzen zaionean, Euskal Herrirako itzulerak sortzen dizkion etxe-aldaketako gastuak ordainduak izateko eskubidea izango du funtzionarioak.

3.– Bi kasu horietan, aurrekontua onartu ondoren eta gastuak egiaztatu ondoren egingo zaio gastuen ordainketa.

4.– Egoitza-tokia aldatzeagatik kalte-ordainetarako eskubidea, aldaketa hori sortu zuen egin-tza gertatu zenetik bi urte joaten direnean, iraungi egingo da.

27. atala.– 1.– Atzerriko destinoa hartzen duen funtzionarioak bere egoitza-herritik destino berrirako lehenengo bidaiaren gastuak ordainduak izateko eskubidea edukiko du eta destino hori bukatzen zaionean, Autonomi Elkartera itzultzeko bidaiakoak. Halaber, bere oporraldiekin batera, joan-etorriko bi bidaiarako eskubidea izango du funtzionarioak.

2.– Eskubide hori duenarekin batera eta bere pentzutan bizi direnen bidai gastuak ere ordaindu egingo dira.

28. atala.– Hizkuntza, kultura eta pedagogi-arazoengatik, funtzionarioek destinatutik dauden herriko herri-ikastetxeetan egindako ikasketek, garai horietan Euskal Autonomi Elkartearen ofizialki indarrean daudenekin alde handiak dituztenean, lantokia dagoeneko herrian egiazki matrikulaturik dauden adin txikiko seme/alaba bakoitzaren matrikula-gastuak ordaintzeko eskubidea izango dute.

29. atala.– 1.– Erosteke gaitasuna eta bizi-baldintzak parekatzeko, atzerrian destinatutik dauden funtzionarioek kalte-ordain bat jasoko dute.

2.– Soldata, aparteko pagak eta osagarri finkoak eta lanpostuaren aldizkakoak batzetik ateratzen den diruordainketa guztia, Eusko Jaurlaritzak ekitaldi bakoitzarako erabakiko duen modulu batez biderkatuz ateratzen dena izango da kalte-ordainerako diru-zenbatekoa.

30. atala.– Atzerrian destinatua dauden funtzionarioek dekretu honetan xedatutakoaren indarrez hartu beharreko kalte-ordainen diru-zenbatekoa pezetatan kontatuko da beti eta ordainketa diru horretan edo beste edozein dibisa bihurtzeko egingo da Ogasun eta Herri Administrazio Sailak onartu ondoren.

31. atala.– Atalburu honetatik ateratzen diren dirusarrerak dekretu honetan xedatzen diren gainerako kalte-ordainekin eta konpentsazioekin bateragarriak izango dira.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Otordu, bidaia eta alojamendu gastuak zerbitzu enprekin hitzarmendu daitezke, gastu horiei buruz Dekretu honetan oharmandako muga eta baldintzei egokitzuz.

Bigarrena.– Ohizko lanaldia luzatzeagatik langileek izan ditzaten ezohizko gastuak, hots, otordu, bidaia eta alojamendukoak, ordaingarri lez hartuko dira eta Dekretu honetan jasotako eran ordainduko dira.

Hirugarrena.– Lanean diharduen langileren bat hiltzen bada, bidaia gastuak eskuratzeko eta altzarien zein tresneriaren garraiatzeko eskubidea izango dute familiako kideek; aldezaurretik, onartutako aurrekontua aurkeztu beharko da eta, ondoren, zuritu. Egoera hori behin bakarrik gerta daiteke, eta Euskal Autonomi Elkartea eta Estatu osoa hartzen ditu.

Laugarrena.– 1.– Ordezkapen lanetan dihardutelako hirugarrengoak afarrietara eta gozarrietara gonbidatzea ere ordaindu beharreko gastutzat joko da, aldezaurretik baimena beharko dela horretarako. Egindako gastuaren hainbateko kalteordaina emango da, horien zuripena aldezaurretik egin aurretik; zuripen horretan, bertaratzen direnen Izen-abizenak eta zein kargu edo lanpostu duten adierazi beharko da.

2.– Ordezkapenak direlaeta gastuak egiteko baimena, dagokion Zuzendaritzako titularrak emango du, berorri atxikitako langilegoari dagokionez; gainerako Administrazio Publikoetan, agintadun organoek beteko dute eginkizun hori.

3.– Ordezkapen zereginetan egindako gastuak eskuratzeko, eta helburu horrekin izandako gastuak ordaintzeko erabil daitezkeen dieta edo kalteordainen sortzapenak bateraezinak dira.

Bosgarrena.– Otorduetarako dirulaguntzak ezar ditzakete Administrazio Publikoek euren zerbitzuak etendako lanaldian betetzen dituzten langileentzat. Dirulaguntza horien diruzenbatekoa eta sortzapenerako behar diren baldintzak eta beharkizunak, Jaurlaritzaren Kontseiluak finkatuko ditu Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioan; eta lekuan-lekuko organoek, gainerako administrazio publikoetan. Lanegun bakoitzagatik esleitu daitezkeenak ezingo du gaintu, egun bakoitzeko, Dekretu honetako I Eraskinean hazkurri dietarako ezarritako diruzenbatekoaren %50a.

Seigarrena.– V atalburuan adierazitako bertaratzeak eskuratzeko gehienezko mugak zenbatu asmoz, Dekretu honen esparruan sartu gabeko administrazio publikoetan antzeko izaerako iharduketengatik sor zitezkeenak hartuko dira kontutan.

Zazpigarrena.– Dekretu honetan jasotzen ez diren ezohizko egoeretan, hau da, zerbitzuko zereginetan gastuak sortu eta uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 79.2 atalean xedatutakoaren arabera kalteordainak eskuratzeko eskubidea sortzen duten egoeretan, Ogasun eta Finantza Sailak eta

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailak onartuko dute, Euskal Autonomi Elkarre honetan, kaltea ordaintzeko erabakia; gainerako administrazio publikoetan, ordea, agintedun organoek.

Zortzigarrena.– Dekretu honetako III eta IV atalburuetan adierazitako egoeretan, interesatuak egoitzaherritik kanpo lo egitea izango balu eta minusbaliaren bat izan, bere zaintzailea izango litzatekeen laguntzaile bat izatera behartuko lukeena alegia, laguntzaile horrentzat ere baliagarriak izango lirateke kalteordain horiek.

Bederatzigarrena.– 1.– Dekretu honetako III eta IV atalburuek aipatzen dituzten egoeretan, kasu bakoitzean legozkiekeen kalteordainen diruzenbatekoak aurreratuta eskura ditzakete langileek, gero justifikatu edo itzuli daitezeneraren kaltetan gabe.

2.– Aurrerakinak eskatzea, esleitzea eta likidatzea, eta kalteordaingarriak diren gastuen zuri-pena, gai horretarako Ogasun eta Finantza Sailak –Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa– eta agintedun organoek gainerako administrazio publikoak- zehaztu ditzaten manuei egokituko zaizkie.

3.– Atzerrian izandako gastuen zuripenari dagokionez, «Banco de España»k finkatuko du trukaneurria likidapen egunean.

Hamargarrena.– Dekretu honetan zehatzmehatz aipatu gabeko garraiabide berezirik erabili ahal izateko, Ogasun eta Finantza Sailaren aldeazurretik baimena beharko da Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioan; eta agintedun organoena, gainerako administrazio publikoetan.

Hamaikagarrena.– 1.– Lehendakaria, Lehendakariordeak, Sailburuak, Administrazioiko goi kargudunak edo atxikitakoak, Foru Diputuatuak, Toki Korporazioetako kide hautagarriak buru direneko Ordezkaritzetako langileak edo, zerbitzuko zereginak direlaeta, euren egitekoak betetzen lagun diezazkienak, Dekretu honetan adierazitako kalteordainei buruzko araubide bereziari egokituko zaizkio, xedapen honetako hurrengo idazatietan ezarritako salbuespenekin.

2.– Benetan gastatu eta zuritutakoa joko da alojamendu gastuengatik eskura daitekeen diruzenbateko lez, Dekretu honetako 8. atalean ezarritako mugapenak ezingo zaizkiela aplikatu.

3.– Dekretu honetako 5. atalean adierazitako diruzenbatekoak gainditzen dituzten otordugastuengatik, benetan gastatu eta zuritutakoa ordainduko da, eurak laguntzaile direneko karguaren edo agintariaren edo partaide direneko Ordezkaritzaren aldeazurretik adostasunaz. Horrelako egoeretan, baldin eta interesatuak sortzapenerako eskubiderik izango balu, hazkurridietaren zenbatekoa %50ean gutxituko da, idazati honetan adierazitakoaren arabera ordaindutako gastu bakoitzeko, gozaria zein afora izan.

Hamabigarrena.– 1.– Dekretu honetatik salbuetsirik geratuko da, berariazko araudiari jarraituz, ondoko zerrenda honetako jardueretan Administrazioarekin zerbitzu harremanik ez duten pertsona fisikoen parte hartzea:

a) Arlo publikoko jarduerak, bertako langileen heziketa edo hobekuntzarako ikastaro gisa bideratuak.

b) Mintegiak, elkarrizketak, mahai-inguruak, hitzaldiak, lankidetzak edo beste edozein antzeko jarduerarik.

c) Kide anitzeko organoak, dirulaguntzen izapideetaz arduratzen direnak eta, zientzi, arte edota kulturazko intereseko ekimenei diru-laguntzak emateko epaimahaiak.

2.– Lehengo idatz-zatian aipatutako kontratuak egiaztatzeko nahikoa izango da eskumena duen organoak izendatze hutsa. Organo horrek ere adieraziko du prezioa.

3.– Arau multzo honen 21. artikuluan aipatzen diren kide anitzeko organoen bileretara joatearen diru-ordaina, betiere bertara doazenek ez baldin badute Administrazioarekiko zerbitzu-harremanik, 21. artikuluko horretan jasotzen denaren arabera arautuko da.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honek indarra hartu aurretik sortutako kalteordainetan, une hartan aplikagarria zen arautegian xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.– Dekretu honek indarra hartzerakoan euren bileretan parte hartzeagatik bertarantzeeskubidea, edo antzeko izaerakoa, aitortuta duten Administrazio Organo Kolegiatuek, bertaratze horiek ordainduz jarraitu dezakete egun horren ondorengo sei hilabetetan. Epe hori igaro ondoren, eskuratze horiek indarrik gabe utziko dituzte; 21. atalean aipatzen den baimena dutenak salbuetsi egingo dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekretu honen aurkako maila bereko edo beheragoko xedapenak indargetu egiten dira, batez ere irailaren 17ko 307/1985 Dekretua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honetan ezarritako kalteordainen diruzenbatekoa aldizka berraztertuko da Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez; izandako gastuaren eta benetan ordaindutakoaren arteko oreka lortzeko ahaleginak egingo dira.

Bigarrena.– 1.– Dekretu honetan aipatzen diren gastuen kontuhartze zaingoa egin-osteko kontuhartze bidez burutuko da, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontuhartze Zuzendaritzak zehaztu dituzan harmen eta zernolakoekin; zuzendaritza horrek ezarriko du zerbitzuaren ondoriozko kalteordainen fiskalizazio egitasmoa; emaitzen berri Jaurlaritzaren Kontseiluari emango diote.

2.– Zerbitzuko zereginak direlaeta izandako gastuak, Dekretu honetako III eta IV atalburuetan adierazten direnak, ordaintzeak eta, hala behar izanez gero, aurrerakinak emateak, aurreratutako ohizko fondoaren araubideari buruzko arautegia izango dute aplikagarri.

Hirugarrena.– Ogasun eta Finantza Sailak eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailak, bere-bereak dituzten eskuduntzen alorrean, dekretu honetan xedatutakoa aplikatzeko beharrezkoak izan daitezzen xedapen osagarriak emango dituzte.

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 2.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA ATXAERANDIO.

I. ERANSKINA

Mantenu ordaina: 42 euro.

II. ERANSKINA

Kalte-ordaina, norbere ibilgailua erabiltzeagatik: 0,29 euro/km.

Kalte-ordaina, norbere motozikleta erabiltzeagatik: 0,15 euro/km.

III. ERANSKINA

Bizilekuz aldatzeagatiko kalte-ordaina: 525 euro.

IV. ERANSKINA

Langileak hautatzeko prozesuaren ardura duten epaimahaietan parte hartzeko bertaratzea:

Epaimahaiburua eta idazkaria: 70 euro.

Kidea eta laguntzailea: 63 euro.